

SGAE Fundazioak, bere helburua den interes bereziko ikusentzunezko generoak –hala nola dokumentalak– sustatzeko helburua betez, "SGAE Dokumentalak 2019" programarako deialdia ireki du, denboraldi honetako aretoko emanaldietarako obrak jasotzeko.

sgae Dokumentalak 2019

ONARRIAK

1. Deialdi hau honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten dokumentalen zuzendari guztiak parte-hartzeko ireki da:

· SGAEren bazkide izatea.

· SGAEren bazkide izan ez arren, bazkide izateko izapideak egiten aritea, SGAEen sartzeko eskatu dutelako. Hortaz, SGAEen sartzeko eskaeraren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

· SGAEren bazkideak ez izan arren, SGAEen sartzeko eskatzea, programa honetarako hautatuak izan direla eta beren dokumentala SGAE Fundazioaren aretoren batean proiektatuko dela jakinarazten zaienean. SGAE Fundazioak izapideekin lagunduko dio autoreari. Hautatutako zuzendariak baldintza hori betetzen ez badu, programatik deskalifikatuko da.

Honako hauek ezingo dira aurkeztu: SGAEren Zuzendaritza Batzordeko kideak, SGAE Fundazioako Patronatuaren kideak edo SGAEren Lurralde Kontseiluren bateko kideak.

Materialen aurkezpena obraren zuzendariaren izenean egin behar da; hala ere, banatzailearen harremanetarako datuak erantsi ahalgo dira.

2. Aurkeztu ahalgo diren dokumentalak gai librekoak izan ahalgo dira –filmatze-formatuak alde batera utzita–, gutxienez 45 minutuko iraupena izango dute eta 2018ko urtariletik aurrera ekoiztiak izango dira; ez da mugatuko parte-hartzaile bakoitzaren obra-kopurua.

Dokumentalak originalak izan beharko dira. Ez da onartuko dagoeneko existitzen diren dokumentalen egokitzapenik edo beste bertsiorik, ezta zuzendari berarenak badira ere.

3. Parte-hartzaileek beharrezko eskubide guztiak izan beharko dituzte aurkeztutako obraren gainean, dokumental-emanaldien eskubideak barne, eta SGAE Fundazioa berariaz salbuetsiko dute horien gaineko edozer erreklamazio sortuz gero.

4. Lanak gaztelaniaz edo gaztelaniazko azpitituluekin aurkeztu beharko dira. Proiektzioarako, 35 mm-ko euskarria edo DCP edo Blu-Ray-ren gainean egindako kopia masterra onartuko dira; erakundeak aretoko proiektzio-formatua ezarri ahalgo du, eraginkortasun hobearen arabera, autoreak eramaten duen euskarria oinarri harturik.

5. Proiektu honetan lanak aurkezteko, oinarri hauekin batera erantsi den parte-hartze fitxa bidali behar da nahitaez, dokumentalaren zuzendariak behar bezala eskuz sinatu ondoren; horrekin batera, dokumentalaren DVD kopia bat edo USB memoria bat erantsi beharko da dokumentala ikusteko, baita obraren fitxa tekniko-artistikoa ere. Aurkezpena posta arruntez edo telematikoki bidali daiteke, oinarri hauetako 6. puntuan adierazitako helbideetara. Aurkezpen telematikorekin kasuan, posta-e bat bidali behar da eskatutako informazioarekin eta obra ikusteko esteka (link) batekin.

6. Obrak posta arruntez jasoko dira SGAE Fundazioaren egoitzan (c/ Bárbara de Braganza, nº 7, 28004 Madril), edo telematikoki honako posta elektronikoko honetan audiovisuales@fundacionsgae.org.

7. Deialdi honen aurkezpen-epaia 2019ko abuztuaren 16an irekitzen da eta 2019ko irailaren 20an ixten da.

Aurkezpen-epaia itxi ondoren, SGAE Fundazioak aurkeztutako eskaerak balioetsiko eta dokumentalak aukeratuko ditu. SGAE Fundazioak hautaketa horren berri emango die aukeratutako zuzendariari.

8. Dokumentalen aukeraketa egitean, "SGAE Dokumentalak" erakundeak proiektatzeko gutxieneko kalitatez ez duten obrak baztertuko aukera gordetzen du, erakustaldi-saio bakoitzaren diseinu-irizpideari jarraikiz, zeina SGAE Fundazioak ezartzen baitu eskusiboki. Era berean, aukeratzeko lehenespenei balioa zera izango da, oraindik aretoetan estreinatu gabeko dokumentalak izatea.

9. Aukeratutako dokumentalak Madrilgo Berlanga Aretoran proiektatuko

dira 2019ko urriaren 01etik 2020ko urriaren 01era arte, eta proiektatu ondorengo hurrengo sei hilabeteetan zehar, SGAEren / SGAE Fundazioaren menpekoak diren Espainiako beste hainbat aretotan birprogramatu ahalgo dira; programa honetan aurkezteak zuzendariak hori hala egitea onartzea dakar. SGAE Fundazioak zuzendariaren eskura jarriko du proiektzio-aretoa proiektzio bakoitzerako behar diren baliabide teknikoekin eta gizaki-baliabideekin; baita hainbat doako sarrera ere hautatutako zuzendari bakoitzaren saio bakoitzerako.

10. Aukeratutako obraren zuzendariak 200 € garbiko konpentsazio ekonomikoa jasoko du bere obrarekin egiten den pase bakoitzean emanaldi-eskubideen kontzeptu moduan; baimentze-kontratua sinatu eta dagokion faktura eta beharrezko dokumentazio fiskala aurkeztu ondoren ordainduko da kopuru hori.

11. Parte-hartzaileek SGAEri eta SGAE Fundazioari baimena ematen diete beren ikus-entzunezko obraren zati bat zein dokumentalaren argazkiak eta/edo fotogramak ere edozer komunikabidetan sustapen-helburuetarako erabil ditzaten, online baliabideetan barne. Erabilera hori ekimen honen etorkizuneko edizioen sustapenetan ere erabiliko da.

12. Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa eta horren erakunde kolaboratzaileak salbuesten dituzte plagioaren ondorioz edo parte-hartzailearen batek indarreko legerian sor dezakeen arau-hausteren baten ondorioz sortutako erantzukizun orotik.

13. Izaera pertsonaleko datuen babesa. Parte-hartzaileek SGAE Fundazioari ematen dizkioten izaera pertsonaleko datuak fitxategi batean txertatuko dira, eta fitxategi horren arduraduna SGAE Fundazioa izango da, eta nolahi ere, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa ezarriko da.

14. Arau Orokorrak.

A. Parte hartzaileek, lehiaketan parte hartzen duten heinean, oinarri hauek erabat onartzen dituzte, baita SGAE Fundazioaren erabakiak ere. Halaber, SGAE Fundazioari baimena ematen diote hautatuen datu profesionalen edo/eta argazkien inguruko informazioa zabaltzeko.

B. Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, bai parte-hartzaileak, bai antolakuntza Madrilgo Auzitegien jurisdikzioaren mende izango dira. Uko egin beharko diote, beraz, dagokien eskumenari.

IZENA EMATEKO FITXA

Fitxa honen sinaduraren bidez, eskatzaileak baimena ematen dio SGAE Fundazioari bere datu pertsonalak erabil ditzan honako honetarako:

· Edozer baliabide fisikoren edo digitalaren bidez deiak, jakinarazpenak eta ohartarazpenak jasotzeko, "SGAE Dokumentalak" proiektuan egingo duen parte-hartzea kudeatzeko.

· Zuzendariaren datu biografikoak zein zuzendariak, "SGAE Dokumentalak" proiektuaren barruan aurkeztutako dokumentalaren emanaldiarekin loturik, dituen argazkiak eta irudiak zabaltzea edozer baliabideren bidez.

· SGAEren eta SGAE Fundazioaren bidez eskaintzen diren kultura, sustapen eta bertaratzeko mailako onuren gaineko informazioa jasotzea, baita informazio- eta komunikazio-aldizkariak ere.

SGAE Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, Espainiako Zuzenbidearen arabera eratu zena, fundazio baten forma juridiko baten arabera, eta Fundazioen Erregistroan behar bezala inskribatuta dagoena 314. zenbakiarekin. Egoitza sozialaren helbidea honako hau da: c/ Bárbara de Braganza nº 7; eta honako IFK-zenbakia du: G-81624736.

Honako helburu hauek ditu, besteak beste: ikus-entzunezko obrak eta horien autoreak (zuzendariak, errealizadoreak, gidoilariak, argumentulariak eta musikariak) sustatzea, obraren sustapen kulturala egitea horiek birbaloratzeko eta zabaltzeko, eta SGAEren bazkideen eskubide moralak defendatzeko. Horretarako, besteak beste, honako jarduerak hauek egiten ditu: laguntzen, sarien, lehiaketen, jaialdien eta formakuntza-jardueren deialdiak eta autore-eskubideak zabaltzea, baita horiek gauzatzeko behar diren kudeaketa- eta administrazio-ekintza guztiak ere.

ESKATZAILEAK AITORTZEN DU BADAKIELA ETA ULERTZEN DUELA, dokumentu hau sinatuz gero, BAIMENA EMATEN DUELA dokumentu honetan ematen diren datuak SGAE Fundazioaren fitxategi batean gorde daitezkeen; datu horiek soilik eta berariaz erabiliko dira proiektu honetan egiten duen parte-hartzea kudeatzeko eta SGAE Fundazioaren eta SGAEren jardueraren gaineko aldizkako informazioa bidaltzeko. Era berean, badakit SGAE Fundazioak nire izaera pertsonaleko datuak jakinarazi ahal dizkiola SGAEri, egile-eskubideen kudeaketa kolektiboko zerbitzuak emateko.

Formulario honen bidez, BERARIAZKO BAIMENA EMATEN DUT nire datuak helburu horietarako erabil daitezkeen. Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamenduaren, datu pertsonalen tratamendua egitean pertsona fisikoak babesteari buruzkoaren, eta abenduaren 05eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, BADAKIT nire aurkakotasun-, sarbide-, mugaketa-, ezabapen-, zuzenketa- eta eramangarritasun-eskubideak, zein banakako erabaki automatizatuaren xede ez izateko eskubideak ere erabil ditzakedala; horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko dut, nire izen-abizenekin, helbidearekin eta NANaren fotokopiarekin batera, gauzatzeko eskubidea eta horren arrazoia adieraziz, honako posta-e honetara: informacion@fundacionsgae.org. Era berean, BADAKIT nire erreklamazioak aurkeztu ditzakedala Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean.

SGAE Fundazioak gorde egingo ditu zuzendariak emandako datuak, baldin eta zuzendariak SGAE Fundazioaren jardueren gaineko informazioa jaso nahi badu, eta aipatu baimena baliogabetzen ez badu; hori egin nahi izanez gero, behar bezala jakinarazi beharko dio SGAE Fundazioari.



IZENA EMATEKO FITXA

ESKATZAILEAREN DATUAK (DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA)

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

PK _____ Udalerria _____

NAN _____

Telefono finkoa _____ Telefono mugikorra _____

Posta-e _____

DOKUMENTALAREN DATUAK

Titulua _____

Iraupena _____ Ekoizpen-urtea _____

Dagoeneko estreinatu den obra bada, estreinaldiaren dataren eta tokiaren

xehetasunak eman. _____

Filmatze-formatua _____

Proiektzioaren formatu eskuragarria _____

_____ (e)n, 2019ko _____ -ren _____ (e)(a)n

Sin. _____ Jn/And. _____

sgae fundazioa

MATERIAL BIDALKETAK
audiovisuales@fundacionsgae.org

SGAE FUNDAZIOA
Bárbara de Braganza 7 kl. 28004 Madril
SGAEren Ordezkaritza Nagusiak Espainian eta atzerrian
(ikusi helbideak hemen: www.sgae.es)

INFORMAZIOA
Interesdunek kontsultak egin eta oinarri hauei buruzko
informazio gehiago jaso ditzakete helbide hauetan:
audiovisuales@fundacionsgae.org
www.fundacionsgae.org
www.sgae.es
Tel.: 91 503 68 00 / 18

Ekimen honek **sgae**ren laguntza jaso du

